



Erromeria «goiztiarra» berreskuratuko dute Ibaetako jaietan

Otsailaren 21etik 23ra izango dira Ibaetako jaiak, eta martxoaren 1ean, ohiko legez, Aingeru Zaindariaren Eguna ospatuko dute. Inauteriekin kointziditu du aurten, baina ermitara ez dira mozarrotuta igoko, «betiko tradizioa mantentzeko».

📷 Sara Ibaguren Etxeberria

Ibaetako jai batzordea prest dago auzoko festetarako: «Familia baten modukoak gara, eta primeran pasatzen dugu. Horregatik antolatzen ditugu gauzak». Talde horretako Marijose Moraza Eizmendi, Txaro Irizar Ezeiza eta Olatz Balda Sagarzazu kideek azaldu dutenez, aurten, jaiak aurreratu behar izan dituzte, martxoak 1 — Aingeru Zaindariaren Eguna — larunbata delako. «Normalean, hurrengo asteburuan ospatzen ditugu jaiak, baina, aurten, Martxoaren 8a tokatzen denez, zaila izango da jendea hona etortzea. Hori dela eta, aukera bakarra jaiak aurreratzeko zen», adierazi dute.

Hilaren 21etik 23ra ospatuko dituzte Ibaetako jaiak beraz, eta hainbat berritasun dituzte egitarauan. «Ostiralean, azken urteotan, afaria egiten genuen. Aurten, aldaketa bat egin nahi genuen, eta erromeria berreskuratuko dugu», nabarmendu du Baldak. 3ttu erromeria «goiztiarra» izango dute, eta 22:00etan hasiko da. «Goiztiarra diot, gero, 01:30ean, koskortuentzako zinten lasterketa egingo dugulako», gehitu du jai batzordeko kideak.

«Top» jardueretako bat

Hain zuzen ere, lasterketa horrek auzoko jaietan duen garrantzia nabarmendu nahi izan dute. «Gu gazteak ginenean egiten zen, eta duela 25 urte baino gehiago berreskuratuko egin genuen», adierazi dute Morazak eta Irizarrek.

*Lukainkategi
jatetxea*

Aingeru Zaindaria Bidea, 85
20018 Donostia, Gipuzkoa

943-37 14 44

Ondo pasa jaiak!

Jarduera hori jendeak «oso serio» hartzen duela diote, eta probara etxetik «zainduta eta ezer edan gabe» joaten direla parte hartzaile asko. «Badirudi kirol proba bat dela, baina hori ez da gure asmoa. Gure asmoa da jai giroan bertan egotea, eta proba egiteko unean bizikleta hartzea», esan du Baldak.

Bizikleten gainean, arkatzak edo boligrafoak lotuta dauden zinten uztaitxoetatik sartzea lortu behar da proban, eta sariak ez dira huskeriak: «Oilaskoak, bazkariak, ardoak, gozokiak... Auzoko establezimenduek eta enpresek doan ematen dizkigute sari horiek, eta oso ondo portatzen dira beti gurekin. Inoiz ez digute ezetzik esan ez dutelako parte hartu nahi; hala izan bada, izan da ezin izan digutelako lagundu», nabarmendu dute.

Santua sakratua da

Esan bezala, aurtan, Aingeru Zaindariaren Egunak inauteriekin kointzidituko du martxoaren lean. Ermitara moztortuta igoko diren galdetuta, ezetz erantzun dute. «Pentsatu genuen moztortuta joatea, baina santua sakratua da, eta goian, betiko tradizioa mantendu nahi genuen», esan dute, barre artean. Beraz, ermitatik jaisten direnean, Aratz jatetxean egingo duten bazkarirako moztortuko dira. «Arratsaldean egongo gara inauteri giroan; auzoan bertan, non bestela? Hori da plana», azaldu dute. ●



OSTEGUNA 20

19:00 - 23:00 · GROSS garagardotegian
IPAETA festa. DJ eta giro paregabea.

20:00 · Aratz erretegi
Afari herrikoia (40€).

OSTIRALA 21

Laser parkea

Prezio bereziak Ibaetako Jaietan. %15ko beherapena zuen jokoetan.

17:30
Buruhandiak eta Oria txaranga.

18:00
Txokolate jana.

22:00
3TTU erromeria.
Eta ondoren, Mojito & Patxaran DJ-ak.

01:30
'Koxkortuentzako' (18 urte eta askoz gehio bete duenentzat) zinta lasterketa (ezinbesteko da bizikleta ekartzea).

LARUNBATA 22

Lautximeneta frontoian

Laser parkea

Prezio bereziak Ibaetako Jaietan. %15ko beherapena zuen jokoetan.

12:00
Haurrentzat ikuskizuna: Pontx pailazoa:
Denak Plazara!

17:00
Haurrentzako jolasak.

17:00
Krosa. Aingeru Zaindariaren ermitara igoera (izena emateko: Herrikrosa.eus/RealizarInscripcion.asp).

18:00
Buruhandiak eta Oria txaranga.

18:30
Txokolate jana.

19:30
Txoko De La Txuleta tabernak zuzeneko musikaz girotutako sardina jana eskainiko du.



ilarra

Illarra leku bat baino gehiago da: berotasuna, lotura eta oroitzenak dira. Hemengoak, tradizioa eta modernitatea batzen dira pertsonak, historiak eta une gogoangarriak ospatzeko.

Zatoz eta bizi esperientzia ahaztezinak zuretzako sortuta dagoen txokoan.

Illarra Bidea, 97, 20018, Donostia · 943-45 40 90 · www.ilarra.com



21:15

Danborrada herrikoia
(18 urtetik gorakoentzat) auzoan zehar.
Irteera: parrokiako behealdetik
(jantziak: arrantzalea, baserritarra,
sukaldaria...).

Entsegua: asteartea, otsailak 18,
19:30ean, parrokiako
behealdean.

22:30

Kontzertuak:
Mark Duti, La Jodedera eta La Fulana DJ-a
(goizaldera arte).

IGANDEA 23

**Aitor Zabaleta plazan edo
Lautximeneta frontoian**

Laser parkea

Prezio bereziak Ibaetako Jaietan.
%15ko beherapena zuen jokoetan.

10:30

Diana eta
dultzaineroak.

10:30

Toka eta bote txapelketa
(izena emateko itxiera: 11:30).

11:00

Eskolarteko haur krosa Errotaburun.
Grupo Cooperativo Montes Nortek babestua
(Txomin Agirre, 6. Oliba olio birjina, bodega
eta gourmet eta eco produktuak).

12:30

Patata tortilla lehiaketa
(izena emateko itxiera: 12:15).

Ibaetako Jaiak alaitasunez ospatu!



Portuetxe Kalea, 53,
20018 Donostia, Gipuzkoa



Ondo pasa jaiak!



943-31 67 84 687-04 05 20

12:45

Sagardo dastaketa.

17:00

Herri kirol jaialdia: aizkolariak (Ugaitz Mugertza eta Arkaitz Etxebeste) eta harri jasotzaileak (Lierni Osa eta Ainitze Zumeta): enbor mozketak, harri jasotzeak, proba mistoa, trontza, txingak, korrika eta agurra.

18:00

Dantzaokea gazteentzat (euskarazko abes-
tiak soilik).

ASTELEHENA 24**Aitor Zabaleta plazan****Umeen eguna**

Feriak prezio herrikoietan.

Donostia Laser Parkean 'prezio eroak'

11:30/14:30 eta 16:00/20:00.

Joko bakoitza, 5 euro pertsonako.
Informazioa edo erreserbak, 673-43 88 28
telefonoan (WhatsApp).

OSTIRALA 28**20:00 · Arrikitaun tabernan**

Andaluziaren Egunaren
ospakizuna.

LARUNBATA 1**Aingeru Zaindariaren ermitan****11:00**

Meza.

12:00

Salda eta Estanga trikitilariak.

12:15

Amassorrain ikastolako ikasleek inauteriak
antzeztea.

**12:45**

Bertso saioa: Sebastian Lizaso, Andoni
Egaña, Beñat eta Unai Gaztelumendi.

18:30

Bertso potea. Ibaetako Zirkuak lagunduta
(auzo osoa dago moztortzera gonbidatuta).

ARATZ
zabaleta anaiak

Jai alaitsuak opa dizkizuegu!

Igara Bidea, 15, 20018 Donostia, Gipuzkoa Tel.: 943-21 92 04